

**Larraintzarko**  
IKASTETXEA

## URTEKO PROGRAMAZIOA

<b>IKASTURTEA</b>	2020/2021	<b>IRAKASLEA</b>	Irati Arrieta
<b>MAILA</b>	4.DBH	<b>ARLOA</b>	IKT

### HELBURUAK, OINARRIZKO GAITASUNAK, EDUKIAK, EBALUAZIO IRIZPIDEAK eta ESTANDAR EBALUAGARRIAK

24/2015 FORU DEKRETUA, apirilaren 22koa, Nafarroako Foru Komunitatean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzen curriculumaz ezartzen duena.

[http://www.navarra.es/home\\_eu/Actualidad/BON/Boletines/2015/127/Anuncio-0/](http://www.navarra.es/home_eu/Actualidad/BON/Boletines/2015/127/Anuncio-0/)

### EDUKIEN DENBORALIZAZIOA

<b>1. ebaluazioa</b>	<ol style="list-style-type: none"><li>1. Aurkezpena eta ikasgaiaren azalpena.</li><li>2. Kalkulu orriak (Google Kalkulu-orriak).</li></ol>
<b>2.ebaluazioa</b>	<ol style="list-style-type: none"><li>3. Testu prozesadoreak ( Google Dokumentuak).</li><li>4. 2.0 Web-a: Google Sites.</li><li>5. Audio edizioa: Audacity.</li></ol>
<b>3.ebaluazioa</b>	<ol style="list-style-type: none"><li>6. Irudien Edizioa: Gimp.</li><li>7. Bideo edizioa: WeVideo.</li></ol>


### KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK

Ebaluazio bakoitzean lortuko den kalifikazioa modu honetan kalkulatu da.

- ❖ Azterketak: % 45
- ❖ Gelako lanak:%45
- ❖ Jarrerak: %10

Azterketa bakoitzean gutxienez 4 atera behar da batazbestekoa egin ahal izateko. Jarreran 5-eko kalifikazio minimoa beharrezkoa da bataz- bestekoa egin ahal izateko.

### BERRESKURAPEN SISTEMA



**Larraintzarko**  
IKASTETXEA

## URTEKO PROGRAMAZIOA

Ikasturteko berreskurapenak:

- ❖ Ebaluazio bakoitzaren bukaeran, gainditu ez diren edukiak berreskuratzeko, errefortzu ariketak eta ekintzak proposatu daitezke berreskurapeneko kontrola egin aurretik.
- ❖ Azterketen batazbestekoa ezin denean egin, 5era iritsi ez diren atalak berreskuratu beharko dira.
- ❖ Berreskurapen kontroleko egunerako lanen bat entregatzea eskatzen bada, gehienez puntu bateko balioa izango du, kontroleko notari gehituko zaiona, beti ere kontrolean gutxienez 4 atera badu. Lanik aurkeztu behar ez denean, berreskurapen kontrolean 5 atera behar da gutxienez gainditzeko.
- ❖ 1. eta 2. ebaluazioek beraien berreskurapena izango dute ebaluazio bakoitzaren ondoren. 3. ebaluazioko berreskurapena ohiko deialdian egingo da.
- ❖ 1. eta 2. ebaluazioen berreskurapena gainditzen ez bada, ebaluazio osoa ekaineko ohiko deialdian berreskuratu beharko da. 3. ebaluazioko berreskurapenean gainditu gabeko atalak errekuperatu beharko dira ohiko deialdian. Suspenditutako ebaluazio bakoitzarentzat azterketa bat egongo da ohiko deialdian gainditzeko eta ebaluazio bakoitzean 5 lortu behar da gutxienez.
- ❖ Ohiko deialdian ebaluazioen bat berreskuratzen ez bada, ez-ohiko deialdian ebaluazio osoa berreskuratu beharko da, gutxienez 5 lortuz.

### **BESTELAKOAK: baliabideak, metodologia, aniztasuna**


Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak berenganatzeko modu bakarra aritzea da. Beraz ikasgai honen ardatz metodologikoa jarduera praktikoa eta proiektuak dira. Jarduera praktikoen helburua IKTen tekniketari trebatzea da. Jarduera bakoitzari landuko diren eduki batzuek egokituko zaizkie eta ezinbestekoa izango da irakasleek esandako modura gauzak egitea (beste modu batzuetan egiteko aukera izango duzuen arren) . Hauek baloratuko dira: ordenaz lan egitea, planteatutako urratsak jarraituz; ekoiztutakoak eskatutako baldintzak betetzea eta funtzionatzea; txukuntasuna; ordena eta epeak errespetatzea.

Zenbait unitate didaktikoetan proba praktikoa egin beharrenean kontzeptu berrien bereganatzea gertatu dela baloratzeko tresna izango dira proiektu informatikoak. Kasu hauetan libreki lan egingo duzue praktiketan ikasitakoa aplikatzeko. Hauek baloratuko dira: ordenaz lan egitea, planteatutako urratsak jarraituz; diseinua; ekoiztutakoak eskatutako baldintzak betetzea eta funtzionatzea; txukuntasuna; ordena.

Jarduera praktikoa bakarka egingo dira, proiektuak aldiz binaka egingo dituzue. Taldeak egiterako orduan hasieran heterogeneoak izatea bilatuko da. ez da sexu nahasketa bilatuko, taldekideek ardurak banatzen dituztenean rola ez markatzeko.

Material idatzizkoa eta digitala: sortuta dago dagoeneko. On-line ere eskura izango duzue. Hauen artean: gelako apunteak, azalpenak laguntzeko bideoak, sakontzeko ariketa fitxak, sakontzeko jarduerak praktikoa... Moodle-eko gela birtualarekin, Google APPS-kin eta Wordpresss-ekin lan egingo dugu nagusiki.

Baliabide informatikoak: (programak) : GSuite aplikazioak, Audacity, Gimp, WeVideo,...



**Larraintzako**  
IKASTETXEA

## URTEKO PROGRAMAZIOA

### Helbide interesgarriak

**-Ikastetxeko web-orria:**

<http://larraintzarip.educacion.navarra.es/>

**-Arloa lantzeko** departamentuak wiki (web orri bat) bat dauka. Bertan aurkezpenak, bideoak, zuen lanak eta lotura interesgarriak aurkituko dituzu.

<http://teknologiadbh.wikispaces.com>

-Irakaslearekin kontaktuan jarri nahiez gero, haxe da nire helbidea elektronikoa:  
[iarrietagu@educacion.navarra.es](mailto:iarrietagu@educacion.navarra.es)

\***OHARRA:** Egoeraren arabera, kurtsoan zehar aldaketak egon daitezke bai edukiei bai ebaluazio irizpideei dagokienez.